

16/17

#  
momentum

Euskadiko Orkestra  
Sinfonikoa  
Orquesta Sinfónica  
de Euskadi

**Jun Märkl**  
Zuzendari titularra  
Director titular

**Andrey Boreyko**  
Zuzendari printzipal gonbidatua  
Director principal invitado

**Bilbao/Bilbo | Donostia/San Sebastián  
Vitoria/Gasteiz | Pamplona/Iruña**



EUSKADIKO  
ORKESTRA

Eusko Jaurlaritzako Herritaritzua  
Sociedad pública del Gobierno Vasco



EUSKADIKO  
ORKESTRA

## 2016/2017 DENBORALDIA EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

### #momentum

“Gure bizitzak denboran aurrera doaz. Eta bide horretantxe sortu da #momentum, denbora gelditu dela ematen duen unea, gelditasunerako espazioa. Musikaren bidez emozionatzeko unea, ezinegonak darabilen gizarte zorabiagarri honetan...”

**Euskadiko Orkestra sinfonikoak kontzertu-denboraldi berri bat proposatzen dizu, lehen mailako bakarlari hauei protagonismoa eskainita: Pinchas Zukerman, Katia & Marielle Labeque ahizpak, Julian Rachlin, Enrico Dindo eta Vadim Gluzman. Baita Jun Märkl, Ari Rasilainen eta Hans Graf zuzendari handiei ere.**

Euskadiko Orkestrak gure herriko musika eta kultura arloko ondasun nagusia bilakatzeko bidean jarraitzen du aurrera. **Topaleku** da bere egoitzetan eta gero eta presentzia handiagoa duen hirietan; eta egoera horretatik eskaintzen da **kulturgune** gisa, hausnarketarako eta emoziorako espazio gisa proposaturik. Hausnarketa hori urritik ekainera doan aukera zabalari lotzen zaio, eta emozioak norbanako bakoitza blaitzen du, Euskadiko Orkestraren proiektuarekin bat egiten du eta pertsona gisa hazi arazten dio.

Abiapuntu horretatik, Euskadiko Orkestrak, hausnarketarako eta emoziorako topagune den aldetik, bere publiko guztiari proposatzen dio, abonatuerei eta abonatu gabeei, xede duen gizarte osoari, azken finean, **ezagutzea eta aintzatestea**. Errepertorio berria ezagutzea, estetika berriak, Orkestrak lehen aldiz aurkezten dituen lan berriak, hala nola Elgar (biolinerako kontzertua), Hosokawa, Walton. Eta Orkestrak berriro bizitu izan nahi dituen beste batzuk aintzatestea, hala nola Tchaikovsky (4.a), Schumann (2.a), Debussyren “Images” eta Escudero ere bai, “Gernika” bere lanaren irakurketa berri batekin, José Ramón Encinar-en aditu-begiradapean.

1



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa - Orquesta Sinfónica de Euskadi  
Tel: 943 013 232 • Fax 943 30 83 24

melosegui@euskadikoorkestra.eus / ilarranaga@euskadikoorkestra.eus / www.euskadikoorkestra.eus



EUSKADIKO  
ORKESTRA

## **ABONU DENBORALDIA: Jun Märkl, Zuzendari Titularra Andrey Boreyko, zuzendari gonbidatu nagusia**

Euskadiko Orkestraren 2016/17 Abonu Denboraldia **urriaren 3an hasiko da Gasteizen eta 2017ko ekainaren 22an bukatuko da, Donostian**. Denboraldi berri honetan –bere historian 35.a– Orkestrak 11 programa ezberdin eskainiko ditu egoitza bakoitzean: Bilbo, Donostia (ekitaldi bikoitza), Gasteiz eta Iruñea; horrek 55 kontzertu egiten du guztira, Abonu Denboraldian bakarrik.

### **1. PROGRAMAZIOARI BURUZ:**

Denboraldi berri honek maisulan sinfoniko-koraleko benetako musika-katalogo bat osatuko du; errepertorio sinfonikoko funtsezko lanak; piano, biolin eta biolontxelorako kontzertuak, bakar-literaturan giltzarri direnak, batez ere; hausnarketarako lanak, gozamenerako, ezagutzeko, aintzatesteke, lehen aldiz ezagutzeko eta berrezagutzeko. Azken finean, Orkestra bere ahalmen guztiarekin ageriko zaigu, baina, batez ere, bere osotasunean, hori baita bere aktibo nagusia, atriletan eta –ziurrenik– entzuleen artean lehen aldiz entzungo diren lan asko eskainirik.

**Programa sinfoniko-koralak: hiru koro, hiru lurralde.** Programa sinfoniko-koral batek zabalduko du denboraldia. C. Orff konpositore alemanaren lanik ezagunena, “Carmina Burana”, lehen aldiz emango da Euskadiko Orkestraren abonu-kontzertuetan. Horretarako, **Donostiako Orfeoia** izango du lagun zati koralean; ongi asko ezagutzen baitu koro honek lan hori. Ahotsak osatuko dituzte **Susanne Elmark, Carlos Mena eta Peter Schöne-k. Bilboko Koralek Elkarteak** hartuko du Orfeoia lekuak, F. Escuderoaren “Gernika” operaren irakurketa berri bat egiteko, hiribilduaren bonbardaketa izan zeneko 80. urteurrenean. José Ramón Encinarrek lan horren proposamen berri bat aurkeztuko du, 80ko hamarkadan Bilboko Koralek eskatua, eta “Gernikako Pasarteak” deitu izan dena. Koralek zatia ixten Gasteizko Abesbatza izango dugu Vicente Goicoechearen “Obras Litúrgicas” Gasteizen interpretatzen; konpositore arabar hau bere heriotzaren mendeurrenean aurkeztu dugu.

**HOSOKAWA proiektua:** Toshio Hosokawa dugu gaur egungo konpositorerik handienetako bat, sortzaile oparoa eta nazioarteko mailan ezinbesteko erreferentea, eta Euskadiko Orkestrak bere atriletan izango du Denboraldiko zenbait unetan. Kontzertuan, denboraldia zabaltzeko eta Tsunamiaren biktimei buruzko hausnarketa egiteko edo “shakuhachi” japoniar flauta tradizionala ezagutzera emateko; eta grabazioan, konpositore japoniarrari buruz NAXOS zigiluak erregistratu duen monografikoan. Orkestrak, eta Jun Märkl-en eskutik, bere alderik garaikideena erakutsiko du, konpositore horren munduan murgiltzeko. Proiektu hau EU Japan Festival-ekin lankidetzan garatuko da, Donostia San Sebastián 2016 erakundearen bidez.

2



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa - Orquesta Sinfónica de Euskadi  
Tel: 943 013 232 • Fax 943 30 83 24

melosegui@euskadikoorkestra.eus / ilarranaga@euskadikoorkestra.eus / www.euskadikoorkestra.eus



EUSKADIKO  
ORKESTRA

**Euskal Musikaren alde, sormenarekin konprometiturik, gure herriko konpositore eta musikariak.** F. Escuderoren “Gernika”ren irakurketa eta berrirakurketa; X. Otaolea euskal konpositore gaztearen aurkezpena “Agartha” (2014) bere lehen lan sinfonikoarekin; Guridiren “Diez Melodías Vascas” eta V. Goicoechearen “Obras litúrgicas”. Hiru koro: Donostiako Orfeoia, Bilboko Koral Elkarte, Gasteizko Abesbatza. Eta Carlos Mena gasteiztarraren bisita berria.

**Garrantzizko bakarlariak:** Bakarlarien atala beti izaten da erakargarritasun handikoa programazio guztietan. Horregatik, oraingoan, Euskadiko Orkestrak apustu bat egin du ospe handiko izen ezagunak beste batzuekin uztartzeko, gurean agian ez oso ezagunak, baina nazioartean ibilbide bikaina egina dutenak. Haien artean, **Katia & Marielle Labeque** ahizpa pianistak berriro izango ditugu hemen, baita ere euskal denboraldi sinfoniko batera lehen aldiz datorren **Pinchas Zukerman** biolinista, eta azkenik, **Julian Rachlin eta Vadim Gluzman. Leticia Moreno** izango da bakarlarien multzoa osatzen, oso udaberri biolintsua eskaintzeko instrumentu honen erreperitorio bikainaren bidez: Brahms, Elgar, Mendelssohn eta Khatchaturian. Aipatzekoak, halaber, **Nicholas Angelich** pianista amerikarra eta **Enrico Dindo eta Amanda Forsyth** biolontxelistak, azken hau amerikarren artean bizkorrenetarikoa, **Pinchas Zukerman** biolinistarekin bikotea osatuko duena. Programatzearen egiteko zailean, ahalegin berezia egin da bakarlariek beren lanik esanguratsuenak ekar ditzaten, gailurrera iristeko bidea zabaldu dietenak, edota beren muina eta artista izatearen funtsa erakusten dutenak.

**Ibilbide sinfonikoa:** Denboraldi osoko musika-katalogo zabalean, Orkestrak bere unea ere bilatuko du, egitura sinfoniko handitzat aurkeztu eta aditzera emateko, zenbait lanen bidez: Schumann (2. sinfonia), Tchaikovsky (4.a), Brahms (4.) eta Debussyren “*Images*”. Keinadaren bat egingo du, eta bestelako adierazpide artistiko eta tematikoak bilatuko ditu Prokofiev eta Tchaikovsky-ren “Romeo y Julieta”rekin; britainiar musikarantz ere joango da Vaughan Williams-en eskutik, edo Elgar eta Walton-ekin (kasu honetan, ONBA - Orquesta Nacional Burdeos-Aquitania kideekin elkartrukea eginda).

**Abonu garaian entzungo diren bi proiektu diskografiko berri:** Euskadiko Orkestra nazioarteko erreperitorio eta konpositoreen erregistroan murgilduko da. Lehena, **Saint-Saëns**-en bidetik, arlo klasikoan, eta, bigarrena, ikuspegi garaikideago batetik, egungo sorkuntzan, mundu guztian programatzen den konpositore emankor baten proiektu berezian: **Toshio Hosokawa**. Orkestrak abonu-denboraldian eman nahi izan ditu ezagutzera bi konpositore hauek, eta Abonu Denboraldian lehen aldiz eskainiko diren lanekin aurkeztuko ditu, hala nola: “Suite Algerienne” eta “Suite Op.49” Saint-Saëns-enak, eta “Meditation”. To the victims of Tsunami”, “Klage” eta “Autumn Wind for Shakuhachi and orchestra” Hosokawari dagokionez.

**Elkartrukea (ONBA) Orquesta Nacional Burdeos-Aquitania orkestrarekin.** Aukera berri bat, Euskadiko Orkestraren atriletan ideia berriak dakartzaten ahots ezberdinak





EUSKADIKO  
ORKESTRA

entzuteko. Berrero ere ONBArekin trukean, Paul Daniel zuzendariaren eskutik, Vadim Gluzman biolinista gaztea Tchaikovsky interpretatzen.

**Soinu-mosaikoa:** “Soinu-mosaikoa” proiektuak izango du oihartzunik Abonu Denboraldian, Emilio Aragónen “La flor más grande del mundo” haren barruan hartuta. 2017ko urtarrilean interpretatuko da, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak arituko dira jotzen Euskadiko Orkestrako musikariekin batera. Espainiako 14 orkestrak aktibatu duten proiektu honen abiaburua Euskadiko Orkestrak urteak direla FEVASein batera egindako esperientzia hartan bilatu behar da; haren oinarria musika garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko bitarteko gisa ulertzean datza.

## **2. ZUZENDARIAK**

Denboraldi berriak zortzi zuzendari izango ditu. Orkestrako Musika Zuzendaritza osatzen duten **Jun Märkl** Zuzendari Titularrak eta **Andrey Boreyko** Zuzendari Gonbidatu Nagusiak programa gehienak zuzenduko dituzte. **Ari Rasilainen, Ainars Rubikis, José Ramón Encinar eta Cristoph König** berriro datoz Orkestraren podiumera, baita **Hans Graf** ere, Euskadiko Orkestraren zuzendari titularra 94 eta 96 urteen artean, eta 2008an gonbidatua. **Paul Danielek** ONBA (Orquesta Nacional Burdeos-Aquitania) zuzentzeko hartuko du batuta.

## **3. INSTRUMENTU ETA AHOTS BAKARLARIEI BURUZ**

Abonu Denboraldiak dituen 11 proiektuetatik, horietako 10etan bakarlariak daude programan, batzuk ezagunak gure eszenatokietan eta beste batzuk berriak, baina guztiak garrantzitsuak eta ezinbestekoak nazioartean. **Enrico Dindo eta Amanda Forsyth** biolontxeloarekin. Udaberri artistiko handia **Pinchas Zukerman**-ekin –euskar denboraldi sinfonikoetan lehen aldiz–, eta **Julian Rachlin, Leticia Moreno eta Vadim Gluzman**-ekin (kasu honetan, ONBArekin batera). **Katia & Marielle Labeque eta Nicholas Angelich** protagonistak pianoaren aurrean. Bi programa sinfoniko-koralen barruan ahots-zerrenda benetan luzea. Azpimarratu behar da Denboraldiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hiru lurraldeetako koroak izango dituela, **Gasteizko Abesbatza, Bilboko Koral Elkarte eta Donostiako Orfeoiarekin**, hurrenez hurren. **Susanne Elmark, Carlos Mena eta Peter Schöne** datoz ahotsen zerrenda osatzera, Denboraldia zabalduko duen C. Orff-en Carmina Burana abesteko. **Carmen Solís, Federico Gallar, Gustavo Peña, Fernando Latorre, eta Miguel Angel Arias** elkartuko dira José Ramón Encinar zuzendari lanetan izango duen F. Escuderoren “Gernika”ko pasarteak interpretatzeko.

Hosokawa proiektuak bi artista japoniar ekarriko ditu oholtza gainera, **Mihoko Fujimura** mezzosopranoa eta “shakuhachi” japoniar flauta tradizionala jotzen duen **Tadashi Tajima**.





EUSKADIKO  
ORKESTRA

## GURE ORKESTRAREN BESTE JARDUERA BATZUK:

Denboraldi bakoitzean funtsezko ardatza eratzen duten abonua kontzertuez gain, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren jardueraren katalogo askotariko batez osatuta dago. Kontzertuak zikloen arabera banatuta daude, geure ekoizpenekoak izan daitezkeenak, edota musikaldi garrantzitsuak eta beste kultur ekitaldi batzuk. Abonua Denboraldia eta gainerako jarduerak batuz gero, Euskadiko Orkestrak ehun jardueraren inguru burutzen ditu denboraldi bakoitzean.

### **EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA DONOSTIA 2016REKIN:**

Jadanik egin diren Musika Klasikoaren Nazioarteko Sariari (ICMA 2016), *Ederra eta Piztiaren* emanaldiari, EMUSIKi eta kontzertu denboraldian Hiriburutzaren presentziari gehitu behar zaizkie Orkestrak datozen hilabeteetan Katia & y Marielle Labèque ahizpekin batera eskainiko dituen kontzertuak eta Hosokawa egitasmoa, EU Japan Fest-ekin lankidetzan garatuko dena.

### **GRABAZIOAK: SAINT-SAËNS ETA HOSOKAWA:**

Orkestrak bi disko grabatzeko proiektuei ekingo die NAXOS diskoetxe entzutetsuarekin batera. Lehenengoa molde klasikokoa izango da, eta C. Saint-Saënsen lanak bilduko ditu; bigarrenean, Orkestraren alderdi garaikideena erakutsiko da, gaur egungo sorkuntzaren arloko erreferentzia puntu handietako bat den Toshio Hosokawa japoniarraren lanak bilduko baitira bertan. Uste dugu ekintza estrategikoa dela Euskadiko Orkestra, euskal musikaren inguruko proiektuei ekiteaz gain, munduaren aurrean aurkeztea nazioarteko musikagileen lanak ere grabatuta.

**SOINU-MOSAIKOA: Proiektu honen bidez, urratsak egiten ari dira desgaitasun intelektuala duten pertsonak soinu sorkuntzako lantegietan txertatzeko, aldi berean lan egiten duten 14 orkestraren partaidetzaz.** Hamalau elkarte sinfonikoko 140 musikari lan egiten ari dira desgaitasun intelektuala duten 228 pertsonarekin, AEOSek (Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarte), BBVA Fundazioak eta Plena Inclusión elkarteak sustatzen duten programaren garapenean. Parte-hartzaileak *Munduko lorerik handiena* (La flor más grande del mundo) lana prestatzen ari dira, Emilio Aragónek José Saramagoren ipuinean oinarrituta egindako konposizioa, eta jatorrizkoari gehituko zaizkion mikrokonposizioak sortzen ari dira. Sortzen diren lanak orkestra bakoitzaren abonua programazioan joko dira 2017ko lehenengo hiruhilekoan. **Nabarmendu behar dugu Espainiako 14 orkestrak bultzatutako proiektu honen abiagunea Euskadiko Orkestra Sinfonikoak aurretiaz izandako esperientzia dela, orain dela urte batzuk FEVASekin batera garatu zena eta musika norberaren garapenerako eta gizarteratzeko tresna bezala sentitzean oinarrituta dagoena. Jarduera hau Mikel Cañadak koordinatzen duen MUSIKA GELAn garatuko da. Euskadiko Orkestrak 2017ko urtarrilean aurkeztuko du SOINU-MOSAIKOAren emaitza.**



### **IRTEERA BORDELERA:**

2017ko urtarrilean, Euskadiko Orkestra Bordeleko Auditoriumera itzuliko da gonbidatu bezala, ONBaren kontzertu denboraldian. Haiek Euskadiko Orkestraren atrilak okupatuko dituzte 2017ko ekainean.

### **MUSIKA GELA: Euskadiko Orkestra hezkuntzaren alorrean:**

Musika Familian, ikasleentzako kontzertuak, sentsibilizazio tailerrak, lantegiak ikastetxeetan, bisitak Orkestraren egoitzara, Sinfokids egitasmoa eta askoz ere gehiago, musika zaletasuna txiki-txikitatik sustatzeko xedez eta musika ikaskuntza arautua babesteko baliabide bihurtzeko xedez. MUSIKA GELAtik, halaber, dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako jarduerak irteten dira, eta, oraingo honetan, *Soinu-Mosaikoa* egitasmoaren barruan sartu da.

### **MIRAMONGO MATINÉAK:**

Euskadiko Orkestraren ganbera zikloa 25. denboraldira iritsiko da kalitatezko musika beste formatu batean eskainiz. Musika unibertso berdingabea, hau da, Orkestrak Miramonen duen egoitzako auditoriumean.

### **ORKESTRA HERRIETAN:**

Orkestra mantentzen duen gizartearekin konprometituta dago eta gure geografiako bazter guztietara iristen da.

### **MUSIKENEO IKASLEAK EUSKADIKO ORKESTRAKO KIDE:**

Bigarren Orkestra Ikasketa Master Ofizialaren bidez. Euskadiko Orkestraren eta Musikenen artean sinatutako erakunde-hitzarmenaren esparruan eta Jordá Gelaren bitartez. 2016ko ekainean irtengo da jadanik lehenengo promozioa.

### **MUSIKALDIAK ETA BESTE ZIKLO BATZUK:**

Gure inguruneko beste kultur erakunde batzuekin lankidetzan estuan aritzearen ondorioz, eta kulturaren esparruan egindako ekarpena aberasten duten sinergiak sortzeko duen garrantziaren jakitun, Orkestraren jardueraren barruko esparru hau zabaldu egiten da etengabe, denboralditik denboraldira.

Euskadiko Orkestraren ohiko konpromisoen artean, nabarmentzekoak dira **ABAO**n mantentzen dituen bi tituluak eta **Bilboko Musika-Música** emanaldiko bi kontzertuak; eta, horrez gain, **Musika Hamabostaldian** duen parte-hartze gero eta handiagoa, hiru egitasmorekin. Bide berriak jorratzen jarraituko du **Zinemaldiaren** barruan. Eta beste jardunaldi bat antolatuko du, **Musikagileak** elkarteari eskainia.

Amaitzeko, Orkestrak bere jardura ezberdinen garapenean parte hartzen duten erakundeen ororen laguntza eta babes garrantzitsua eskertu nahi du: 7.000 abonatuak eta publikoa orokorrean, babesle eta lankide dituen erakundeak, kultura-eragileak, hedabideak eta abar.